

DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK, TXONTA AUZOAN BIRGAITZE ERAGINKORRAREN XEDEKO ETXEBIZITZEN EDO LOKALEN JABE DIREN PERTSONA FISIKOEI, EBALUAZIO BAKOIZTUAREN ARAUDIAN, DIRU-LAGUNTZA OSAGARRIAK EMATEKO.

1) Araudi erregulatzailea.

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak emateko araubidea hau da:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendu onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Eibarko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udalbatzarrak 2012ko azaroaren 29an egindako bilkuran onartu eta 2013ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman zena.
- Diru-laguntza hau arautzen duten oinarriak, deialdi honetan bertan jasota daudenak.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2017ko azaroaren 28koa, zeinaren bidez diru-laguntza zuzena ematen zaion Eibarko Udalari hiri-berroneratze eta eraikinen birgaitze-lanak finantzatzeko Eibarko Txonta auzoan.

2) DIRU-LAGUNTZEN XEDEA.

Oinarri hauen xedea da birgaitze eraginkorreko obrak finantzatzea Txonta kaleko 02, 03, 05, 15, 17, 25, 27, 29, 36, 38, 40, 42, 44, 46, 48, 50 eta 52 pegora-zenbakietan; onuradunak eraikin horietako etxebizitzan eta lokalen jabe diren pertsona fisikoak izango dira, hala, beste laguntza-programa batzuek diruz laguntzen ez duten birgaitze-kostuaren zatiari aurre egin ahal izateko.

3) DIRU-LAGUNTZA ZEIN AURREKONTU-KREDITURI EGOZTEN ZAION ETA, ESKURAGARRI DIREN KREDITUEN BARRUAN, DEIALDI HONETAKO GEHIENENKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKO OSOA, EDO, HORI EZEAN, DIRU-LAGUNTZEN KOPURU ZENBATETSIA.

Laguntza horiek finantzatzeko Udalak 200.000 euroko diru-ekarpena egingo du hiru urtean (2018, 2019 eta 2020an). Hona hemen urte bakoitzeko gehieneko diru-ekarpena:

Urtea	Gehieneko zenbatekoa, urtean (*)	Partida
2018	10.000 €	1.0200.780.04.152.20

2019	100.000 €	
2020	90.000 €	

Aurrekontu-kreditua agortu delako eskabideak erantzuteke geratzen badira, organo eskudunak hala erabakiz gero, diru-laguntzok egotzi zaizkion aurrekontuaren partida handitu egin daiteke ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko.

4) AINTZAT HARTZEN DIREN BIRGAITZE ERAGINKORREKO JARDUKETAK.

Deialdi honen ondorioetarako, “birgaitze eraginkortzat” hartuko dira jarraian adieraziko diren jarduketa hauek guztiak:

- a) Egituraren eta eraikuntzaren aldetik egokituta ez dauden eraikinetan, ezinbestean egingo dira teknikari eskudun batek eredu ofizialen arabera egindako Eraikinaren Azterketa Teknikoak eskatu eta gomendatzen dituen esku-hartzeak; hala egitea agintzen baitu Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Etxebizitzaren 3/2015 Legearen 52. artikulua.
- b) Etxebizitzek ez badituzte betetzen beharrezko bizigarritasun-baldintzak, 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren IV. Eranskinak eta Eraikuntza Antolamenduaren Legeko 3. artikulua jasotakoak, eraikinari eskatuko zaio bizigarritasun-egokiera hori lortzeko aukera bermatuko duten espazio-antolamendu jakin bat eta eraikuntza-ezaugarri batzuk izatea.
- c) Ilogailuak jartzea, arrapalak egitea eta etxebizitzaren irisgarritasun unibertsala bermatzeko balio duen beste edozein obra egitea, desnibelak edo koskak harmailekin gainditu beharrik ez izateko.
- d) Eraikinaren inguratzaile guztiak (fatxadak, teilatua, hegalak...) hobetzeko esku-hartzea; horretarako egingo diren lanek hobetu egingo dute, letra batean gutxienez, eraikinak hasieran zuen Kalifikazio Energetikoa karbono-dioxido igorpenean (kg CO₂/m² urteko), eraikinaren hasierako kalifikazio energetikoarekiko, indarreko efizientzia energetikoaren ziurtapena egiteko prozeduraren arabera neurtuta.
- e) Araudira egokitzea eta instalazioak eguneratzea: saneamendua, ur-hornidura, argindarra, telekomunikazioak, gasa eta suteen kontrako segurtasuna.

Halaber, “birgaitze eraginkortzat” joko dira energia primarioko kontsumoa murrizteko norbere borondatez egiten diren jarduketak hauek:

- a) Etxeetan dauden galdarak kendu eta errendimendu handiko gas naturaleko galdarak jarri.
- b) Etxeko ur beroa sortzeko sistema bat jarri eguzki-panel termikoen bidez.
- c) Berokuntza-sistema eta etxeko ur bero zentralizatua jarri biomasa-galdararekin, edo energia berriztagarriko beste sistema batzuekin, etxe bakoitzak kontsumitzen duena kontrolatzeko banaketa-sistemarekin.

Deialdi honen xedeko diru-laguntzak emango dira, baldin eta eskatzailearen etxebizitzako eraikinean zerrendatu diren birgaitze energetikoko obrak egitea erabakitzen bada.

5) DIRU-LAGUNTZA EMATEKO ARAUBIDEA.

Diru-laguntza zuzenean emango da horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoitzuaren sistema bidez.

6) IZAERA PERTSONALEKO BALDINTZAK LAGUNTZA HAUEK JASOTZEKO

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak izan daitezke diru-laguntza hauen onuradun:

- a. Adinez nagusi izatea.
- b. Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xede den eraikin bateko etxebizitza baten edo lokal baten jabe izatea, deialdi-oinarri hauetako 2. atalean adierazitako atari edo pegora zenbaki horietako batekoa, alegia.
- c. Higiezin horren titulartasunean urtebetetik gora izatea.
- d. 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua eta gaiaren inguruko araudiak ezarritako debekuren batean sartuta ez egotea.
- e. Bizikidetzak-unitateak urtean 21.100 euro edo hortik beherako diru-sarrera haztatuak izatea. Diru-sarreraren haztapena oinarri hauetan adierazitakoari jarraituz egingo da. Diru-sarrerak konputatzeko, bizikidetzak-unitateak jotzen da etxe berean bizi diren edo biziko diren bi pertsonak edo gehiagok osatzen dutena. Pertsona horiek era hauetan elkartuak egon daitezke: ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorraren bidez, adopzioz edo odolkidetasunez (hirugarren gradua arte), edo kidetasunez (bigarren gradua arte).

Diru-sarrerak zehazteko, bizikidetza-unitateko kide guztien baliabideak kontuan hartuko dira, bai etekinak bai ondarea, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren III. Kapituluaren 2. Sekzioaren 14. artikuluan adierazten den legez.

- f. Etxebizitzen jabeen kasuan, diru-laguntzaren xede den etxebizitzan gutxienez 2017ko azaroaren 1etik erroldatuta egotea.
- g. Lokalen titularren kasuan, lokala norbere konturako jarduerari atxikia egotea.

7) DIRU-LAGUNTZA HAUEK JASOTZEKO DIRU-SARREREI BURUZKO BALDINTZAK.

- a. PFEZ zergaren aitortzea aurkezteko obligazioa duten pertsonentzat eta obligaziorik izan gabe aitortzea egin dutenentzat, Zerga Oinarriak konputatuko dira, orokorrak eta aurrezkienak, gehi laneko irabaziei aplikatutako hobariak eta, kasua bada, balizko errenta salbuetsiak. Kontuan hartuko den aitortzea iraungitako azken ekitaldiari dagokiona izango da.
- b. PFEZ zergaren aitortzea aurkezteko obligazioa ez duten pertsonentzat, honako diru-sarrera hauek konputatuko dira
 - Lan-etekinen kasuan eta langabezia-prestazioetan, kontzeptu guztietatik ziurtatutako diru-sarrera garbitu gabeen %95.
 - Pentsioen eta langabezia-prestazioen kasuan zein zergapetuta ez dauden dieten kasuan, kontzeptu guztietatik ziurtatutako diru-sarrera gordinen % 100.
 - Halaber, konpentsazio-pentsioak kontuan hartuko dira bai jasotzen duen ezkontide ohiaren diru-sarreratzat, bai ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiaren sarrera-murriztapentzat, baldin eta ordaintzera behartuta dagoenak dokumentuen bidez frogatzen badu ordaindu egin duela.
 - Lan-etekinetatik eratorritako diru-sarrerak egiaztatzeke, bakarrik hartuko dira kontuan PFGZren atxikipenengatiko 10T ziurtagiri ofizialak.
 - Kontuan hartuko dira eskaera egin aurreko azken urte osoari dagozkion diru-sarrerak.

Bizikidetza-unitate baten ondarea zehazteko kontuan hartuko da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren III. Kapituluaren 4. Sekzioan adierazitako irizpideak, salbuespen hauek izan ezik

- Bizikidetza-unitateren ohiko eta etengabeko erabilerarako etxebizitza ez da kontuan hartuko.
- Bizikidetza-unitateko kideen ondasun higiezinak, norbere kontuko jarduerari atxikiak (haietako edozeinek egina), ez dira kontuan hartuko.
- Bizikidetza-unitateko kide batek aurrekoetz gain beste higiezin bat izango balu, edo portzentaje bat jabekidetzan, haren katastro-balioaren % 95 hartuko da kontuan.
- Bizikidetza-unitateko kideren batek ibilgailu motordun bakar bat edukitzea ez da kontuan hartuko. Ibilgailu bat baino gehiago izanez gero, gainerakoak urtarrilaren 16ko 15/2018 Foru Aginduaren arabera baloratuko dira.
- Tituluak, eskubideak eta gainerako ondare-balioak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren III. Kapituluaren 4. Sekzioan adierazitakoaren arabera baloratuko dira.

Ondarearen urteko etekinak haren balioaren % 10ean balioetsiko dira, eta bizikidetza-unitatearen beste edozein izaeratako Diru-sarrera Konputagarrien gehikuntzat hartuko da.

Bizikidetza-unitateko diru-sarrera haztatuen kalkulua honela egingo da:

$$\text{Diru-sarrera haztatuak (IP)} = \text{Diru-sarrera konputagarriak} \times N \times A$$

Pertsona bat diru-sarreraren ekarletzat jotzen da, alegia, hartzailea da, familiaren diru-sarrera guztien % 20 gutxienez jartzen duenean.

“N” koefizientea: kide kopurua

Kide 1:	1,00
2 kide:	0,95
3 kide:	0,90
4 kide:	0,85
5 kide:	0,75
6 kide:	0,65
7 kide:	0,55
7 kidetik gora:	0,50

Hauexek izanik:

DIRU-SARRERA KONPUTAGARRIAK: bizikidetza-unitateko kide guztiena.
 N = hurrengo taularen %, bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera (BU).
 A= honako taula honen %, bizikidetza-unitatearen kopuru guztiaren % 20 edo gehiagoko hartzaileen arabera.

“A” koefizientea : jasotzaileen kopurua.

Hartzaile 1: 1,00
 Hartzaile 2: 0,90
 3 hartzaile edo gehiago: 0,85

8) EKARPENEN ZENBATEKOA ETA DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOEKIKO BATERAGARRITASUNA.

- a) Diru-laguntzak, xede bereko beste diru-laguntza batzuek jasotzen ez duten birgaitzearen kostu-zatiaren % 100era helduko dira, bai teknikarien lan-sarrietan bai obraren kostuan.

Aplikatuko den portzentaje zehatza diru-sarrera haztatuen eta bizikidetza-unitateko kide kopuruaren arabera izango da; hona hemen taula:

URTEKO DIRU-SARRERA HAZTATUAK	BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDE-KOPURUA		
	Kide 1	Kide 2	3 kide edo +
9.000 eurokoak edo hortik beherakoak	100%	100%	100%
9.000 eurotik gorakoak eta 12.000 eurokoak edo hortik beherakoak	50%	100%	100%
12.000 eurotik gorakoak eta 15.000 eurokoak edo hortik beherakoak	25%	50%	100%
15.000 eurotik gorakoak eta 18.000 eurokoak edo hortik beherakoak	0%	25%	50%
18.000 eurotik gorakoak eta 21.100 eurokoak edo hortik beherakoak	0%	0%	25%

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da, batetik, eskatzaileak ordaindu behar duen birgaitze-kostua, egozgarria haren jabetzako etxebizitzari dagokion partaidetza-kuotari. Barruan sartuko dira bai teknikarien lan-sariak bai obraren kostuak, BEZa barne. Bestalde, kontuan hartuko dira obren kostua ordaintzeko eman diren edo eman daitezkeen diru-laguntza guztiak, bereziki hurrengo b) atalean zerrendatuak.

Baldin eta eskatzaileak etxebizitzaren edo lokalaren titularkide badira, aplikatu zaien diru-laguntzaren zenbatekoa haien titularkidetasun-portzentajearen proportzionala izango da.

Espedienteak aurkeztu ahala tramitatzen eta ebazten joango dira (deialdian aurreikusitako epearen barruan) horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean; eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaie diru-laguntza. Diru-laguntzak ematea, diru-laguntzaren ebazpena ematen den unean behar adina eta behar den beste kreditu egotera baldintzatzen da.

Aurrekontu-kreditua agortu delako eskabideak erantzuteke geratzen badira, organo eskudunak hala erabakiz gero, diru-laguntzok egotzi zaizkion aurrekontuaren partida handitu egin daiteke ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko.

- b) Oinarri hauetan jasotzen diren ekarpenak bateragarriak izango dira, xede berarekin, beste entitate publiko batzuek eman ditzaketenekin; hala ere, haien guztien batuketak birgaitzearen kostua gainditzen badu, dagokion kopurua murriztu edo itzuli egingo da, gainfinantzaketarik ez gertatzeko.

Bereziki, honako diru-laguntza hauekin izango dira bateragarriak:

- Eibarko Udalaren diru-laguntzak jabekideen komunitateei edo erkidegoei Txonta auzoan bizitegi-eraikinetan birgaitze eraginkorrerako, banakako ebaluazioaren araubidean.
- Eibarko Udalaren diru-laguntzak igogailuak ipintzeko edo igogailu zaharrak kendu eta berriak ipintzeko eta fatxadak berriztatzeko.
- Euskal Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako kontseilariak emandako 2006ko abenduaren 29ko Aginduak (2007ko urtarrilaren 25eko EHAA) eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko partikularrei ematen dizkien laguntzak edo agindu hura ordeztzen duen araudiak dakartzanak, gehienez ere, jarduketan kostu guztia osatu arte.
- Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) dauden eraikinen birgaitze energetikoko jarduketak egiteko duen laguntza-programaren deialdiko oinarrietako diru-laguntzak, gehienez ere, eraginkortasun energetikoko jarduketan kostua osatu arte.

9) ONURADUNAREN BETEBEHARRAK EZ-BETETZEAK

9.1 Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradunek kasu guztietan bete beharko dituzte ondoko obligazio hauek:

- a) Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradunak bete egin behar ditu Diru-laguntzetako Lege Orokorrari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 14. artikulua ezarritako obligazioak.
- b) Emandako laguntza onartzea. Laguntzaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamabost (15) eguneko epea du onuradunak diru-laguntzari uko egiteko. Epe horretan diru-laguntzari berariazko ukorik eman ez badio, onuradunak diru-laguntza onartu egin duela ulertuko da.
- c) Diru-laguntza eman den helburu zehatz hori betetzeko erabiltzea.
- d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunetan ari direnean eskatzen duten informazio guztia ematea deialdi honen kargu jasotako diru-laguntzen inguruan.
- e) Eibarko Udalari jakinaraztea helburu berbererako beste laguntza-eskaera bat egin bada edo beste administrazio batetik edo erakunde batetik, diru-laguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso badira, edozein delarik ere ematen dituen administrazioa edo erakunde publikoa zein pribatua.
- f) Eibarko Udalari itzultzea Oinarri hauetan araututako laguntzak ondorengo 10. atalean aurreikusitako era horretan eskualdatzen bada etxebizitza.

9.2 Oinarri hauetan islatutako baldintzak edo, hala bada kasua, laguntzak ez badira ezarritako epeetan itzultzen, aurrenik, ez-betetze espedientea egingo da, eta, horren ondoren, emandako diru-laguntza galdu egingo da eta Eibarko Udalari itzuli behar zaio legezko interesekin.

9.3 Eibarko Udalari dagokio laguntzak atzera botatzeko espedienteak egitea eta ebaztea, eta, hala bada kasua, emandako laguntzak, osorik edo partzialki itzultzea.

10) DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ITZULTZEA HIGIEZINAREN ESKUALDATZE KASUETAN AMORTIZAZIOA.

10.1. Emandako diru-laguntzak itzuli egingo direla bermatzeko eta birgaitze-proiektuaren garapenean ekintza publikoak sortu dituen gainbalioetan Administrazioaren parte-hartzea bermatzeko, jasotako diru-laguntza itzultzeko beharra ezartzen da etxebizitzak edo diruz lagundutako eraikinaren parte diren higiezinetakako elementuak bizien artean eskualdatzen direnean.

Haiek birgaitzeko diru-laguntzen xede diren higiezinak ezingo dira eskualdatu 25 urteko epean obraren amaiera-egiaztapenetik, ez badago aldez aurretik egiaztatuta eskualdatzearen xede den etxebizitzaren titularrak jasotako diru-laguntza itzuli duela.

Edozein kasutan ere, jasotako laguntza ekonomikoaren % 100 itzuli behar da.

Etxebizitzaren edo lokalaren «inter vivos» edo «mortis causa» eskualdatzerako, beharrezkoa izango da aldez aurretik jasotako diru-laguntzak itzultzea, bai jabetzarena bai jabetza soilarena edo gozamenarena, bai doakoak bai kostu bidezkoak, hogeita bost urteko (25) epean obra-amaieraren egiaztapenetik, baldin eta eskuratzaila ez bada izan bizikidetzaren unitatearen parte, egitate sortzailearen aurreko 5 urteetan. Baldin eta higiezina "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatzen bazaio egitate sortzailearen aurreko 5 urteetan bizikidetzaren unitatearen parte izan den pertsona bati, edo banaketa eta dibortzioetan higiezina ezkontideetako baten alde adjudikatzen bada, jabe berria lehengo jabearen posizioan subrogatuko da geratzen den denboran, 25 urteko hasierako epea osorik bete arte

Itzultzeko obligaziorako, eskualdaketatzat joko da, halaber, higiezinaren ekarpena egitea sozietateei, izan zibilak edo merkataritzakoak, eta baita ondorioz entitate horien akzioen edo sozietate-partaidetzen eskualdaketak ere.

Etxebizitzetako eta lokaletako titularrek jasotako diru-laguntzari buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokien Jabetza Erregistroan, eta bertan egingo da —administrazio-dokumentu horren aurrean— legedi hipotekarioaren arabera dagokion jabariaren mugatze xedatzailearen erregistro-idazpena.

Itzulketa hori gauzatu egin beharko da, baita ere, obrak egin bitartean sortzen diren eskualdaketa kasuetan.

Itzuliko diren zenbatekoek zuzenbide publikoko diru-sarrera izaera izango dutenez, betearazpen-bidetik exiji daitezke.

10.2 Aldez aurretik bete beharreko baldintza da laguntza esandako era horretan itzultzeko obligazioa betetzea, jabari-muga kendu ahal izateko eta "inter vivos" arteko eskualdaketa eskritura publiko bidez formalizatzeko edo "mortis causa" eskualdaketa kasuan jarauntsia adjudikatzeko.

10.3. Laguntza eman eta lehenengo 5 urteetan egiten diren amortizazioek ez dute interesik sortuko.

Seigarren (6) urtetik aurrera ordaintzeke dagoen printzipalari diruaren legezko interesa gehitu behar zaio, laguntza eman zenetik zenbatzen hasi eta amortizazio osoa edo partziala egiten den egunera arte.

10.4. Jabeak laguntzaren amortizazio partzialak egiteko aukera izango du; horrelako kasuetan, aurreko atalean islatu den bezala, dagozkion interesak aplikatuko zaizkio.

11) PROZEDURA BIDERATZEKO ETA EBAZTEKO ESKUMENA DUTEN ORGANOAK.

Eibarko Udaleko Hirigintza sailak bideratuko du prozeduraren instrukzioa.

Ebazpena ematerakoan, aurkeztu diren eskaeren eta proiektuen inguruan sail horretako legegaholkulariak eta udal teknikariek egindako txostenek diotena hartuko da oinarritzat. Diru-laguntza sustatu duen saileko teknikaria izango da instruktore diru-laguntza deitzen duen organoak hala izendatuta.

Diru-laguntzaren inguruko ebazpena ematea Eibarko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Onuradunek 15 eguneko epea izango dute diru-laguntzari uko emateko; epe hori, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik zenbatuko da. Epe horretan ez badute eman berariazko ukorik, onuradunek diru-laguntza onartu egin dutela joko da.

12) ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA.

2020ko urriaren 30era artekoa izango da (egun hori barne) diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea. Eskaerak deia egiten duen organoari zuzendu behar zaizkio, eta onuradunek berek edo haien ordezkariak sinatutakoak behar dute izan; eskaerarekin batera, eskatutako dokumentazio guztia ekarrita.

Eskaerak auzoko bulegoan entregatuko dira, bulego orduetan.

13) EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da eskaera egiten den egunetik zenbatuta eta dokumentazio osoa ekarrita.

Nolanahi ere, Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak ebazteko, aldez aurretik Txonta auzoko bizitegi-eraikinetan birgaitze eraginkorrerako jabeekideen komunitateei Eibarko Udalek emandako diru-laguntzen eskaera ebatzi beharko da, eskatzailearen eraikinari dagokiona.

14) EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA.

Diru-laguntzen Datu-Base Nazionala izango da emandako diru-laguntzen publizitatea egiteko sistema nazionala

15) DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREKIN BATERA EKARRI BEHAR DIREN DOKUMENTUAK ETA ARGIBIDEAK.

Diru-laguntza eskuratzeko eskaerak agiri hauek ekarri behar ditu:

- a) Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xedeko etxebizitzaren edo lokalen jabe diren pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntza osagarriak eskatzeko orria behar bezala beteta, auzo bulegoan eta Udalaren webgunean (www.eibar.eus) dagoen ereduaren arabera.
- b) NAN, IFZ edo pasaportearen fotokopia, elkarbizitza-unitateko 14 urtetik gorako kide guztiena.
- c) Diru-laguntza ordaintzeko baimena birgaitu beharreko etxebizitzako edo lokaleko eraikinaren jabe-kide-erkidegoari, auzo bulegoan eta Udalaren webgunean (www.eibar.eus) dagoen ereduaren arabera.
- d) Erkidegoaren edo komunitatearen titulartasunaren justifikazio-dokumentua, diru-laguntzaren ordainketa egiteko banketxeko kontuari dagokiona, alegia. Honako agiri hauetako edozein izango da baliokoa: laburpen bankarioaren kopia, libretaren kopia, banketxeak egindako ziurtagiria, edo "Titular-kontua" izeneko orria (Txontako auzo-bulegoan eta udal webgunean, www.eibar.eus, eskuragarri) behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin.
- e) Zerga-obligazioetan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotearen ziurtagirien fotokopiak, bizikidetzaren unitatearen kide guztiena.
- f) Higiezinaren jabetzaren egiaztagiriak (eskrituraren fotokopia edo Jabetza Erregistroaren informazio-ohar soilak).
- g) Jabeen Erkidegoko edo Komunitateko Presidenteak, edo Idazkariak edo Administrazioaileak egindako dokumentua, diruz laguntzea eskatu den obra horiek egiteko Erkidegoak edo Komunitateak eman duen baietza eta eskatzaileak, bere etxebizitzaren partaidetza-kuotaren arabera, eraikinaren birgaitze integrala egiteko ordaindu behar duen kopurua jasoko dituen, (orri hori Txontako auzo-bulegoan eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri).
- h) Beste erakunde batzuetan diru-laguntzak eskatu badira, erakunde, instituzio... horien aurrean egindako diru-laguntza eskaeren zerrenda, edo, hala balegoke, jaso diren laguntzena, bakoitzaren zenbatekoa eta helburua zehaztuta, bereziki eraikin eta etxebizitzak birgaitzeko partikularrei emandako diru-laguntza, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Kontseilariaren 2006ko abenduaren 29ko Aginduan jasoa.
- i) Lokalen titularren kasuan, Eibartik kanpo erroldatuta egonez gero, bizikidetzaren bolantea.
- j) Bizikidetzaren unitateko kide bakoitzaren diru-sarreraren ziurtagiriak:
 - PFEZ zergaren Aitorpenaren fotokopia, Foru Ogasunean edo dagokion Kutxa edo Banketxean aurkeztu izanaren zigiluarekin; iraungitako azken jardunaldiari dagokiona eskaera aurkeztu den unean
 - PFEZ zerga aitortzeko obligaziorik ez balego:
 - Foru Ogasunaren ziurtagiria, iraungitako azken ekitaldian PFEZ zergaren aitorpena ez dela derrigorrezkoa egiaztatzen duena.
 - Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra emandakoa.

- Laneko, jarduera ekonomiko eta sarietako irabazien edo etekinen ziurtagiria (10-T).
 - Beste prestazio edo diru-sarrera batzuk jasoz gero (erretiroa, kotizaziopekoak ez diren prestazioak, konpentsazio-pentsioak, etab.), haien ziurtagiriak.
- k) Jabetza Erregistroaren indizeen zerbitzuak emandako ziurtagiria, egiaztatzen duena bizikidetz-unitateko kide bakoitzaren izenean inskribatutako higiezinak.
- l) Entitate finantzarioen ziurtagiria, izan ditzakeen kontuei, tituluei, baloreei, eskubideei eta gordailuei buruzkoa, azken urteko batezbesteko saldoa adierazita.
- m) Zirkulazio-baimena eta bizikidetz-unitateko kide guztiek jabetzan dituzten ibilgailuen azterketa teknikoaren txartela.

Ez da beharrezkoa izango Udalaren eskuetan dagoen dokumentazioa berriro aurkeztea, aurretik beste administrazio-espediente batzuetarako aurkeztu izan bada.

Eibarko Udalak beharrezko jotzen duen informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio eskatzaileari, diru-laguntzaren eskaera zuzen aztertzeko.

16) AKATSAK ZUZENTZEA ETA AURRE-EBALUAZIOA.

Espedientea bideratu duen organoari dagokio egiaztatzea, eskaerak deialdi honetan eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak bete egiten dituela eta honen aurreko atalean aipatu den dokumentazioa ekarri egin dela; organo horrek agindu dezake zuzenketa egitea DLOren 23.5 artikulua araberak. Hamar eguneko epe luzaezin gehienezkoan eskatutako dokumentazioa ekarri ez, edo akatsak zuzentzeko agindua eman eta akatsak zuzentzen ez dituztenei, eskabidean atzera egindakotzat hartuko dira.

17) DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA.

Diru-laguntzen ordainketa —eskatzaileak alde aurretik baimenduta— zuzenean egingo zaio bere etxebizitza parte den birgaitzearen xede den eraikineko Jabekideen Komunitateari, honako prozedura honi jarraituta:

- a) Lehenengo ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 15, honako dokumentu hau aurkeztu ondoren ordainduko da: *Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xedeko etxebizitza edo lokalen jabe diren pertsona fisikoek zuzendutako diru-laguntza osagarriak: ordaintzeko eskaera* (eredua auzo bulegoan eta udal webgunean, www.eibar.eus eskuragarri). Horrekin batera ondoko dokumentu hauek ekarri behar dira:
- Obrak egiteko ardura duen edo duten enpresarekin egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia, diru-laguntzaren xede diren obra guztiak egingo direla bermatzen dutenak.
 - Obra-hasieraren Aktaren kopia, Jabekideen Erkidegoko edo komunitateko lehendakariak, enpresa eraikitzailearen ordezkariak eta obraren zuzendaritza teknikoak edo fakultatiboak sinatutakoa.

- Jabetza Erregistroko inskripzioaren frogagiria, higiezinari dagokion jabariaren mugatze-xedatzailearen erregistro-idazpenarena.
- b) Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 40, honako dokumentu hau aurkeztu ondoren ordainduko da: *Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xedeko etxebizitzaren edo lokalen jabe diren pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntza osagarriak: ordaintzeko eskaera* (eredua auzo bulegoan eta udal webgunean, www.eibar.eus eskuragarri). Horrekin batera ondoko dokumentu hauek ekarri behar dira:
- Fakturen kopia, obraren exekuzioaren zenbatekoa % 50ean gutxienez beteko dutenak.
 - Obraren zuzendaritzak egindako obra-ziurtagiria.
- c) Gainerako zenbatekoa ordaintzeko, aldez aurretik justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu behar da, hurrengo artikuluan adierazten den legez.

Inolaz ere ez da ordainduko justifikatutako zenbatekotik gorako zenbatekorik, betiere faseka.

18) ONURADUNAK DUEN MODUA ETA EPEA, DIRU-LAGUNTZA EMATEKO HELBURUA BETE DUELA JUSTIFIKATZEKO ETA JASOTAKO FUNTSAK ZERTAN ERABILI DITUEN ARGITZEKO.

Onuradunak hile biko epea du, diru-laguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko, eraikinaren birgaitze-obren amaieratik zenbatuta, eta inondik inora ere ezingo du gainditu 2020ko azaroaren 30a.

Justifikatzeko modua justifikazio-kontu bidezko egingo da. Agiri hauek ekarri behar dira:

- Honako orri hau behar bezala beteta: *Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xedeko etxebizitzaren edo lokalen jabe diren pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntza osagarriak: justifikazioa* (eredua auzo bulegoan eta udal webgunean, www.eibar.eus eskuragarri).
- Obra-amairako ziurtagiria, obraren zuzendaritza teknikoak izenpetutakoa.
- Obra-exekuzioaren fakturen kopia, aurretik aurkeztu ez direnak.
- Erkidegoko edo Komunitateko lehendakari kargua duen pertsonak, edo, hala bada kasua, komunitateko idazkaritza edo administrazioa ordezkatzeko duen emandako agiria; bertan jasoko da diru-laguntzaren onuradunak egindako ordainketen zenbatekoa, eta birgaitze-obra osoagatik azkenean ordaintzea dagokion kopurua.
- Beste erakunde batzuen aurrean diru-laguntzak eskatu badira, Erkidegoko edo Komunitateko presidenteak edo, hala bada kasua, komunitateko Idazkariak edo Administratzaileak emandako agiria, non hauxe ziurtatuko den: beste erakunde batzuei egindako diru-laguntza eskaeren zerrenda, edo, hala bada, jaso diren laguntzena, bakoitzaren zenbatekoa eta helburua zehaztuta.

19) DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA ITZULTZEA, EZARRITAKO BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIK.

Higiezinaren jabariaren mugatze xedatzailearen erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria ez aurkezteak emandako diru-laguntza galtzea ekarriko du.

Diru-laguntzak emateko ezarrita zeuden baldintzetatik edozein DLOaren 37. artikulua ezarritako moduan betetzeke uzteak edo baldintza sasoiz kanpo bete izateak —lortu nahi den helburu publikoa lortzeko baldintza guztiak betetzea edo epea betetzea erabakigarria denean— berekin dakar eskubide osoa erabat galtzea eta, hala balitz kasua, jasotako dirua itzultzea.

Diru-laguntza kobratu ondoren, Administrazioako zerbitzuen aldetik egiaztapen bat edo finantza-kontrol bat egin eta egindako gastu guztiak edo gastuen zati bat ez dela ordaindu agerian geratuko balitz, hartzekodunen aldetik galdagarriak diren gastuak, dirua itzultzeko agindua emango da egokitasunaren printzipioa erabilita; hartara, ordaindu gabe geratu diren gastuen proportzio berean hartuko da itzulgarritzat emandako diru-laguntza.

20) ADMINISTRAZIOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK DIRU-LAGUNTZEN ALORREAN. ZEHAPEN- EDO ZIGOR-PROZEDURA.

Gai horretan, EIBARKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZETARAKO ORDENANTZA OROKORRAREN VI. TITULUAK ezarritakoari egingo zaio kasu. Eibarko Udala

21) EBAZPENAK ADMINISTRAZIO-BIDEARI AMAIERA EMATEN DION ADIERAZTEA.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea dago Ebazpena eman zuen organoari zuzendutako berrazterketa-errekurtsoa sartzeko, edo, bestela, hile biko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa sar daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako Epaitegian (Atotxako Justizia Auzitegia, Teresa de Calcuta plaza 1).

22) DATU PERTSONALEN BABESA.

Diru-laguntza eskaera aurkeztean, deialdian ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarri hauek diotena goitik behera onartzen dituela aitortzen du eskatzaileak. Halaber, adierazten du bere baimenez biltzen direla eskaeran jasotako datu pertsonalak, eta onartzen duela datu horiek tratamendu automatizatua izatea eta sartzeari behar den baimena duten Eibarko Udalaren hainbat fitxategitan; eta onartzen duela datu horiek Udalaren gestioetarako bakarrik erabiltzea. Datuak laga edo komunika dakizkieke beste Administrazio Publiko batzuei edo hirugarren datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen dituen kasuetan.